



Esp. kodea: 2026PHEP0001

Gaia: Kiroldegirako Informazio eta Izapidetze agentea
(Uda garairako)

Oinarriak_ Informazio eta izapidetze agentea

Oinarriak

Hautaketa-prozesu hau aplikatzeko arrazoia da ezinezkoa dela Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EAeko udalak sortutako bitarteko langileen lan-poltsetatik Informazio eta Izapidetze agenteak lortzea, eta Arrasateko udalak ez dituela nahikoa baliabide Informazio eta Izapidetze agente lan poltsa bat sortzeko aldi baterako premia bat betetzeko.

1.- DEIALDIAREN XEDEA

Informazio eta Izapidetze agenteen lanpostuak betetzeko deialdia.

2.- LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

Izena: Informazio eta izapidetze agentea

Sailkapen taldea: C2

Ordainsari maila: Udalhitz 9

Hizkuntza eskakizuna: 2. HE

Iraupena: berehala hasteko eta irailak erdialdera arte (zehazteke data).

*Oporrak kontratu amaieran kitatuko dira.

3. FUNTZIO NAGUSIAK

Eginkizun esanguratsuenak:

Lanpostuaren egiteko orokorra: herritarrei zerbitzua emateko bokazio batetik eta balioaniztasunez, eta ezarritako informazio bideetako edozeinetan (bertan dela, telefonoz eta sistema telematikoz):

- Herritarrei informazioa ematea, Kiroldegiari dagokien gaiei buruz.
- Erabiltzaileen eta abonatuaren iradokizunak eta kexak hartu eta bideratzea.
- Berehala erabakitzeak diren izapideak egitea, abonuekin, ikastaroekin, erreserbekin eta beste gainontzeko Kiroldegiko zerbitzuekin lotutakoak.
- Lanpostuaren egitekoa egoki betetzeko, hierarkiako nagusiek agindutako eta eskatutako egitekoak egitea, lanpostuaren izaerarekin bat.

4.- HAUTAGAIEN BALDINTZAK

a) Europako Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo Europako Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea. Aurkez daitezke, halaber, Europako Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea dutenen ezkontideak ere, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, bai eta nazionalitate hura dutenen ondorengoak eta haren ezkontide zuzenbidez banatu gabearen ondorengoak ere, 21 urte baino gutxiago badute, edota gehiago izanik ere haien kontura bizi badira.

b) 16 urte beteak edukitzea eta derrigorrez erretiratzeko adina ez edukitzea.

c) Eginkizunak betetzeko behar den gaitasun funtzionala edukitzea.

Kodea	BQ26/00064	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1PFR0.6.JD2A		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1PFR06.JD2A		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			





Esp. kodea: 2026PHEP0001

Gaia: Kiroldegirako Informazio eta Izapidetze agentea
(Uda garairako)

d) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua edo baliokidea izatea.

Atzerrian lortutako tituluren bat aurkeztuz gero, titulu horren baliozkotzea eta/edo homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria izan beharko da.

e) Lanpostuak derrigorrean ezarrita duen euskarazko 2. Hizkuntza Eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea, azken hori euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriaren arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzeko indarrean dagoen araudiak diotenaren arabera.

f) Diziplina-espeditze bidez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik berezita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako ez gaikuntza erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan legepekoen kasuan, bereziak edo ezgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

g) Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasun lege kausaren batean sartuta ez egotea.

5.- HAUTAGAIK AUKERATZEA

Lanpostua betetzea premiazkoa denez, Enplegu Zerbitzu Publikora (LANBIDE) joko da; beraz, zerbitzu horrek helarazitako hautagaien artean egingo da aukeraketa.

Eskaerak **aurkezteko epea 5 egun naturalekoa** izango da, Euskal Enplegu Zerbitzuak iragarkia argitaratzen duenetik kontatzen hasita.

Era berean, deialdia udalaren web orrian argitaratuko da.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta seigarren oinarrian zehazten diren merezimenduak baloratzeko Lanbidek bidalitako curriculumean agertzen diren datuak bakarrik hartuko dira kontuan. Udalean beste bide batzuetatik aurkeztutako dokumentazioa ez da baloratu.

Hala ere, epaimahaiak egoki iritzi gero, betekizunak eta merezimenduak egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatu ahal izango die hautagaiak.

Onartu eta baztertutako hautagaien zerrenda Arrasateko Udalaren web orrian argitaratuko da. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da lehenengo; interesdunek egun bateko epea izango dute dagozkion erreklamazioak aurkezteko. Horiek ebatzi ondoren, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

6. HAUTAKETA PROZESUA (40 puntu):

- **LEHIAKETA (30 puntu)**

Kodea	BQ26/00064	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1PFR0.6.JD2A		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1PFR06.JD2A		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			





Esp. kodea: 2026PHEP0001

Gaia: Kiroldegirako Informazio eta Izapidetze agentea
(Uda garairako)

Lanbidek bidalitako curriculumean agertzen diren merezimenduak bakarrik hartuko dira kontuan.

Eskuratu daitekeen gehieneko puntuazioa: 20 puntu.

- Lan esperientzia (gehienez 10 puntu):

- Administrazio Publikoan administrari laguntzaile edo Informazio eta izapidetze agente lanpostuetan (C2 taldea) emandako zerbitzuengatik: 0,25 puntu hilabete bakoitzeko.
- Beste administrazio batzuetan, erakunde publikoetan, enpresa pribatuetan edo kirol-instalazioetan harreragile, bezeroarentzako arreta, informazio-emate edo administrazio-laguntza lanpostuetan emandako zerbitzuengatik: 0,15 puntu hilabete bakoitzeko.

- Euskara, 10 puntu:

C1 maila egiaztatuta izateagatik.

- Informatika ezagutzak (gehienez 10 puntu):

Puntu bi emango da ziurtagiri hauetako bakoitzeko, gehienez ere 10 puntu:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.
- Oinarritzko internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarritzkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Internet aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

Aurreko moduluetako baten bertsio ezberdinak egiaztatzen badira, horietako bat bakarrik baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenek, oinarritzko maila ere egiaztatuta izango dute.

- ELKARRIZKETA (10 puntu)

Lehiaketa fasean puntuazio altuena lortu duten lehen bost hautagaiei elkarrizketa egingo zaie.

Elkarrizketan, lanpostuarekiko egokitasuna, hautagaiaren jarrera eta lanerako prestutasuna baloratuko dira, besteak beste.

Elkarrizketaren bidez gehienez 10 puntu lortu ahalko dira, aurrez aipatutako arrazoiak kontuan izanik.

7.- AZKEN KALIFIKAZIOA ETA BERDINKETA

Behin betiko sailkapenaren hurrenkera elkarrizketa fasean lortutako puntuazioen baturaren bidez zehaztuko da.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa beteta hautagaien artean berdinketa badago, irizpide hauen arabera ezarriko da hurrenkera:

Kodea	BQ26/00064	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1PFR0.6.JD2A		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1PFR06.JD2A		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			





Esp. kodea: 2026PHEP0001

Gaia: Kiroldegirako Informazio eta Izapidetze agentea
(Uda garairako)

- Lehenengo, desgaitasun fisikoren bat duen hautagaiak izango du lehentasuna.
- Bigarren, lan esperientzia atalean puntuazio altuena lortu duenaren alde egingo da.
- Hirugarren, elkarrizketan puntuazio altuena lortu duena.
- Azkenik, aurrekoekin berdinketak jarraitzen badu, zozketa publikoa egingo da.

8.- LAN KONTRATUA

Hautaketa-prozesuan puntuaziorik handiena lortu duen hautagaiari lan kontratua egiteko proposamen arazoitua egingo dio epaimahai kalifikatzaileak alkateari.

Hautaketa-prozesuaren ondorioz kontratatuak izan ez diren hautagaiekin zerbitzu honetako urgentziatzko beharrak asetzeko zerrenda bat sortuko da, baina honek ez du eskubiderik emango aurretik Arrasateko Udalean dagoen lan poltsan integratzeko.

9.- GORABEHERAK

Epaimahai kalifikatzaileak sor daitezkeen zalantzak argitu eta hautaketa prozesua egoki burutzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ahalmena izango du. Epaimahaiaren jardunetik datozen administrazio egintzak inpugnatu ahal izango dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legean, urriaren 1ekoa, ezarritako moduan eta epeetan.

10.- JAKINARAZPENAK

Komunikazio eta jakinarazpen guztiak Arrasateko Udalaren www.arrasate.eus webgunean argitaratuko dira.

11.- DATU PERTSONALEN BABESA

Datu eta eskubide digitalak babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, aukeraketan parte hartzeko eskabidean lortutako datu pertsonalak tratatuko dira.

Datu horiek udal-kudeaketara mugatuko dira, eta beste administrazio publiko batzuei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie, langileen beharrak asetzeko, datuak eta eskubide digitalak babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitako baldintzekin.

Kodea	BQ26/00064	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1PFR0.6.JD2A		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1PFR06.JD2A		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			

